

f YouTube CHANCE LATAM EPSOCIAL MOTOR TURISMO PORTALTIC .CAT ABONADOS

europapress.es
Martes, 6 de diciembre 2011 últimas noticias

CANALDEPORTES
ofrecido por **CEPSA**

Buscar... Buscar

NACIONAL | INTERNACIONAL | ECONOMÍA | DEPORTES | TV | CULTURA | SOCIEDAD | SALUD | COMUNICADOS | INNOVA | VÍDEOS | FOTOS | SERVICIOS

PAÍS VASCO > Euskera | Álava | Gulpúzcoa | Vizcaya | twitter @epeuskadi | twitter @epeuskera

Europako Batzordearen "4cities4development" proiektuko partaidea izango da Bilbo, Turin, Tours eta Rigarekin batera

BILBO, 16 Nov. (EUROPA PRESS) -

Bilbo da Europako Batzordearen "4cities4development" (lau hiri garapenerako) garapenerako lankidetzaproiektuan parte hartzen duten Europako hirietako bat. Turin (Italia), Tours (Frantzia) eta Riga (Letonia) hiriek ere parte hartzen duten proiektu horretan. Bilboko Udala eskuz esku ari da lanean Slowfood Bilbao Bizkaia elkartearekin, Slowfood Internacional erakundearen ordezkari moduan.

Proiektuaren helburu nagusia herrialde garatueto gizarteak hirugarren munduko herrialdeetan dauden elikagai-komunitateei buruz sentsibilizatzea da, bai eta ekoizpen, transformazio eta kontsumoaren eredia zabaltzeko ere. Hartara, kontsumo arduratsua goa bultzatu nahi da, Europar Batasuneko herritarrak arazoaz jabe daitezen eta gizarte konprometituagoa eta kontzienteagoa lortzeko.

Egitasmoaren zuzendaria Europe Aid da. Europako Batzordeko zuzendaritza talde honek Europar Batasuneko lankidetzapolitika jartzen du praktikan beste herrialde batzuekin. Europak 123.000 euroko diru-laguntza eman dio Bilbori komunikaziorako eta zabalkunderako.

Bilboren partaidetza hiru ataletan dago banatuta. Alde batetik, Osasun eta Kontsumo Sailak baterako laneko jardunaldi teknikoetan parte hartuko du, beste lau hirietako arduradunekin batera. Bilbok elikagaien segurtasunaren, nutrizioaren eta kontsumo arduratsuen arloan garatzen dituen ekintzak ezagutzera emango ditu (eskoletan, udal merkatuetan, Mercabilbaon, umeen obesitatearen aurkako Perseo programa).

Bestalde, garapen proiektuak egingo dira Kenyan eta Etio pian, eta tokiko arduradunekin jarraipena egin eta koordinatuko da. Hemen, Bilboko Udalak Baqué Fundazioaren laguntza dauka.

Azkenik, komunikazio kanpaina bat egingo da, kontsumo arduratsua bultzatzeko. Europako Batzordearen eta Slowfood Internacional elkartearen erakustoki propioa izango du Agosto lehiaketan, eta abenduan, Bilboko zenbait tokitan.